

# MARIANISTA IKASTETXEEN IDEARIUMA

Zaragozako Probintzia

*sarrera*



**M**ARIAREN Lagundiaren Zaragozako Probintziako Ikastetxeek agiri honetan zehazten dugu gure Izaera Berezia edota Ideario delakoa. Erizpide kristauetan eta hezitzaile marianista gisa dugun esperientzian oinarriturik, zein hezkuntza mota nahi dugun adierazten dugu hemen, eta gizarteari zerbitzu modura eskaintzen diogu, gaur egungo kultur testuinguruan eta sozialean kokatuz.

Kristau hezkuntzarako Eliz-ekintza ditugu gure Ikastetxeak. Bat egiten dugu Elizaren zereginaz, bai eta hezkuntza alorrean duen presentziaz ere, kultur lanaren nahiz formazioaren bitartez pertsona osoaren erabateko hezkuntza bilatzen duelarik.

Gure Ikastetxeak egiazko giza elkarte izatea nahi dugu, bertan jatorri eta maila ezberdinetako neska-mutilak, haurtxo nahiz gazteak, elkarrekin hezi ahal daitezen, elkar ulertu eta lagunduz.

Gizarte zuzenago eta gizakoiagoa posible egiten duten balioak erabat geureganatuz, zabaltsun giroan hezitzen ditugu.

Gure zeregina bete ahal izateko, beharrezko da Ideario hau gure Hezkuntz Elkartearen osatzen duten giza talde guztiek ezagutu eta onar dezaten:

- \* Irakasleek eta administrazio nahiz zerbitzuetako pertsonak; hauen onarpen eta begirunea nahitaezkoa da, beraien ihardunak gure Izaera Bereziak eskatzen duen zentzu eta koherentzia izango badu.
- \* Gurasoek; agiri hau ongi ezagutu eta erantzunkizunez onartu behar dute, beren seme-alabentzat aukeratu duten hezkuntza mota laburtzen baitu.
- \* Ikasleek; hauek ere Idearioa ezagutu eta ulertzea komeni da, beraien adin eta heldutasunak posible egiten dien neurrian.

1. Gure hezkuntza lanean, bizitzaren eta pertsonaren ikuspegi kristauean hezitzen ditugu ikasleak; Ebanjelioa zabaltzen saiatzen gara; kulturaren zabalkuntza nahiz aurrerapena eta gizartearen aldaketa bilatzen ditugu, salbamen mezuaren arabera.

Gure hezkuntza ahaleginak Mariaren ereduari begiratzen dio; honek fedearen bitartez, Izpirituarekiko irekitasunez eta ingurukoen beharrei adi egonez iritsi baitzuen giza osotasuna.

2. Elizako partaide gisa kristau sinismena pertsonalki, askatasunez eta esplizitoki onartu eta barneratu dezaten prestatzen ditugu ikasleak. Horretarako honako aspektuok lantzen saiatzen gara:

- \* munduaren, bizitzaren eta gizakiaren ikuspegi kristauaren arabera orientatu kultura;
- \* askatasun eta elkarrizketa giroan beti, Jainkoaren Hitzaren pausokako katekesia nahiz eskolako erlijio ikasketak tajuz programatu eta burutu;
- \* sakramentu bizitza eta beste erlijio ohiturak landu;
- \* erlijio ekintza edo ospakizunak eskola ordutegiaren barnean, nahiz eskola ordutegitik kanpo, beti askatasun arduratsuan, adin eta heldutasun mailaren arabera, ikasleei eskeini;
- \* apostolutza arduraren zentzua ulertarazi;
- \* jarraipena zaindu bai beraien formazioan nahiz kristau taldeetako partaidetzari dagokionez;
- \* gizarte kezka landu, bai giza beharretara begiak irekiz, bai beharrea daudenekiko solidaritza gauzatzen duten ekintzetan parte hartuz.

3. Ekintza pastoral guztiak bultzatu eta antolatzeko, Pastoralza Mintegia dugu Ikastetxe bakoitzean.

4. Ikastetxe Marianistetako hezkuntzak, giza bizitza eta kristau bizitza orok berebera duen bokazio dimentsioa lantzen du. Bakoitzaren dohain-ahalmenen arabera, profesionalki gizartearen beharrei tajuz erantzun diezaieten orientatzen ditugu gure ikasleak, eta kristau gisa besteen zerbitzura emanak bizi daitezen.

5. Bere dimentsio guztietan pertsonaren pausokako eta erabateko hezkuntza da gure hezitzaile lanaren helburu nagusia.

6. Kultura aldakorra duen gizarte anitz honetan, gure ikasleak honako balioetan janztea eskatzen du etorkizunerako hezkuntzak:

- \* askatasunaren eta erantzunkizunaren zentzuan;
- \* barnekotasuna lantzeko gaitasunean;
- \* egiaren bilaketan;
- \* bereizteko ahalmenean eta kritikarako gaitasunean;
- \* ekinbide eta sormen pertsonalean;
- \* elkarrenganako begirunean;
- \* elkarlanerako eta zerbitzurako izpirituan;
- \* alaitasun eta itxaropenean;
- \* aniztasuna ulertu eta onartzeko gaitasunean, elkarbizitza baketsurako baldintza gisa.

7. Gure Ikastetxeetako partaide izateko oinarrizko baldintzat jotzen dugu ahalegin zintzo eta iraunkorra bai lan profesionalean bai eta hezkuntz elkar-tearekiko zerbitzuan ere. Gizartearekiko justiziazko betebeharra izateaz gain, Jainkoaren sormen ekintzan eskuhartzeko deia ere bada hori.

8. Gizarte zuzenago eta anaikorrago baten alde lan egingo duten pertsona eta taldeak hezi nahi ditugu. Hargatik, honako ezaugarriok garatzen saiatzen gara:

- \* pertsona, talde eta herrien bizimodu nahiz eskakizunekiko begirunea;
- \* elkarrizketa;
- \* pertsona bakoitzaren berezitasunak eta mugak errealismoz onartzea;
- \* solidaritza izpiritua;
- \* zuzentasuna;
- \* elkar maitasuna;
- \* eramanpena, indarkeria-eza eta bakea.

9. Egiazko integrazioa lortzeko, ondasun banaketa kristaua bultzatzen dugu, behar-tsuenen mesedera; erizpide berari jarraiki, maila ekonomiko erosoan dutenentzat soilik eskuragarri izan litezkeen ekintzei uko egiten diegu.

10. Gizakion arteko berdintasunean, zuzentasunean eta bakean hezitzen ditugu ikasleak; inolako alderdikeria politikotan erori gabe, legezko aukera ezberdinak ezaguturik gizarte eta politika mailan parte hartu eta lan egin dezaten prestatzen ditugu.

11. Gauden tokiko nahiz esparru soziokulturaleko balioak onartu eta lantzen ditugu, bertako gizartean integratzen garelarik.

12. Gure ikasleen garapen sozialari dagokionez, hezkuntzan erabiltzen ditugun estimuluak oso garrantzizkoak direla badakigu. Horregatik, solidaritzaren bideetan aurreratzen laguntzen dutenak hobesten ditugu, honako besteok baztertuz: indibidualismoa eta konpetentzia izpiritua dakartenak; pertsonaren bat baztertu edo gutxien dutenak; egoismoz eta gizarte dimentsioa ahazturik, guztion onaren gainetik gizabanakoa goratzen dutenak; zenbait jarrerari iseka egiten diotenak, farregarri utziz; gizarte kontsumitzailearen ustezko balioak besterik gabe ontzat ematen dituztenak; beste edozeren gainetik garaipena bilatzea zilegiztatzen dutenak.

13. Gure gizarteari eskaini behar diogun zerbitzuetako bat kalitate duineko irakaskuntza da. Ikerlana eta zientzi nahiz pedagogi alorrean etengabeko gaurkotze-lana paregabeko bitartekoak ditugu horretarako.

14. Ikastetxe Marianistetan gure pedagogi-estiloaren oinarrizko ezaugarrien arabera egiten dugu lan:

- \* familia-izpiritua zainduz harreman pertsonaletan eta ikastetxeko elkarbizitzan;
- \* begirune eta arreta berezia izanik ikasle bakoitzaren nortasunari;
- \* garaiak eta inguruak eskatzen dituzten moldaketekiko erizpide irekia ukanez;
- \* aginpidea zerbitzu gisa ulertuz, maitasunean, laguntzan eta erabateko dedikazioan oinarriturik;
- \* egiaren bilaketa bultzatuz, askatasuna erantzunkizunez bizi ahal izateko.

15. Benetako Hezkuntz Elkarteak eraikitzeak Ikastetxe Marianistetan elkarlanean diharduten gizatalde guztien ekarpen bateratua eskatzen du: gurasoena, irakasleena, ikasleena, administrazio eta zerbitzuetako langileena, eta Erakunde Titularraren ordezkariena.

16. Guztiek dute Hezkuntz Elkartearen sasoi onaren erantzunkizuna. Ardura hori aurrera eramateko bidea elkarlanean guztion ona bilatzea da, agiri honen erizpideak betez eta parte hartuz Ikastetxeko ekintzetan nahiz honek dituen gobernu erakunde kolegiatuetan.

17. Ikaslea dugu gure hezkuntz ihardunaren erdigune, hartzaile eta subjektu nagusia; gure Ikastetxeetako ekintza guztiek ikaslearen erabateko hezkuntza dute helburu. Honen adina eta heldutasun maila kontuan izanik, bere partehartzea sustatzen dugu ikastetxeko bizitzan, ekintzetan eta erakundeetan.

Ikasleen oinarrizko betebeharrak dira batetik ardura eta arretaz ikastea, eta bestetik elkarbizitzako arau eta eskakizunen arabera jokatzeko.

18. Irakasleen, eta bereziki tutoreen eginkizunak eragin hezitzaile handia du. Horrek, noski, profesionaltasuna, gaitasun akademikoa eta eredutzat har daitekeen bizitza eskatzen dio irakasleari. Irakasle goa aukeratzeko, erizpide nagusietako bat izango da Ideario hau zenbateraino bere egiten duen eta zabaltzeko gai den. Guri dagokigunez, irakasle goaren esku jartzen ditugu erlijio eta giza mailan, nahiz alor profesionalean etengabe osatu eta gaurkotzeko tresna egokiak.

Irakasleen katedra askatasuna onartzen dugu, Ideario hau errespetatzen den artean eta ikasle bakoitzaren ezaugarriak jartzen dituzten mugak kontuan izanik.

Dela bakoitzaren lanaren bidez, dela partehartze-organoen bitartez, irakasleek bat egiten dute Ikastetxearen bizitza eta misioarekin.

19. Gurasoak dira beraien seme-alaben hezkuntzaren lehen arduradunak eta erantzule nagusiak. Beraiei dagokie, beraz, seme-alabentzat nahi duten hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea.

Ikasle bakoitzaren aita eta amarekin harreman estua eta maizkoa zainduz burutzen da hezkuntza lana gure ikastetxeetan. Elkarlanerako jarrera eskatzen diegu gurasoei, beraien seme-alaben irakasleekiko bereziki, eta ikastetxeko organoetan parte hartzea.

Ikastetxeak, bere aldetik, gurasoen orientazio eta laguntza eskakizunei erantzuten die, familiako hezkuntza lana ahalik hobekien betetzen laguntzeko.

20. Administrazio eta zerbitzuetako langileek ere gure Ikastetxeen martxa onerako aportazio garrantzitsua dute; heziketa lanarekin bat egiten dute eta ikastetxeko organoetan parte hartzen, beraien ordezkarien bitartez.

21. Mariaren Lagundiak, Ikastetxe Marianisten Erakunde Titular gisa, Idearioarekiko leialtasuna bermatzeko ardura du bere gain. Berak izendatzen du zuzendaria, honek bere jectioaren berri ematen diolarik. Partehartze organoetan ere dagozkion ordezkariak izendatzen ditu Erakunde Titularrak eta, bestalde, legeak ezartzen dizkion atribuzioak ditu.

22. Hezkuntz Elkarteko gizatalde guztiek, bakoitzak bere kompetentzia alorraren arabera, beraien ordezkariak dute Ikastetxeko partehartze organoetan. Organo hauen eginkizuna Hezkuntz Elkartea osatzen duten guztien eskuhartzea eta elkarlana erraztea da hain zuzen, bakoitzaren ardura eta zeregina errespetatuz. Betiere toki eta garai bakoitzean indarrean den araudiaren barruan, organo hauek honako erizpideok izango dituzte beti kontuan:

- \* agiri honetan zehazturiko Izaera Berezia;
- \* ikasleei zor zaien hezkuntz ahaleginaren kalitatea;
- \* hezkuntz Elkarteko partaide guztien erantzunkizun elkarbanatua.

23. Goian deskribaturiko Ikastetxe Marianisten Idearioak ikastetxeon bizi-arrazoiaren berri ematen du: Hezkuntz Elkartearen bitartez, Elizaren presentzia eta testigantza izan nahi dute kultur alorrean eta gizakiaren zerbitzuan, pertsona bakoitza hezitzean, giza balioez eta askatasun eta maitasuneko ebanjelio-izpirituaz jantzi nahi da, horrela gizartearen humanizazio prozesuan parteide bihurtuz.